

## EDUCACIÓN

# 'Xuxen 5' euskarazko zuzentzaile berria sarean da

Bertsio berri honetan ortografia akatsak detektatzeaz gain, proposamen gramatikalak ere egiten dira

IZASKUN MOYANO | BILBAO  
@IZAS\_MG

11 noviembre 2015  
07:21

Euskal Herriko Unibertsitateko IXA Taldeak eta Elhuyarrek, 'Xuxen 5' zuzentzaile ortografiko eta gramatikal berria aurkeztu dute astearte honetan Usurbilen. Leire Cancio Elhuyar Fundazioko zuzendari nagusia, Xabier Artola EHuko Ixa Taldeko ordezkaria eta Itziar Cortés Elhuyarreko Hizkuntza eta Teknologia unitateko kidea izan dira tresna berriaren xehetasunak azaldu dituzten kideak.


Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko eta Elhuyar hiztegiak azken aldaketak txertatu dira euskarazko lehen zuzentzaile ortografikoaren datu basean, eta erregela gramatikalak berriro dira, Microsoft Office-rako sortu den azken zuzentzaileak proposamen ortografiko, lexiko eta gramatikal eguneratuak egin ditza. Xuxen 5 zuzentzaileak, idazten ari dela, gorri azpimarratzen ditu akats ortografikoak, eta horiek nola zuzendu proposatzen du.

Bi hamarkada igaro dira Xuxen euskarazko lehen zuzentzaile ortografikoa sortu zenetik. Hizkuntzalari eta informatika ingeniariak elkarlanean sortutako sistema hark "iraultza" ekarri zuen ordenagailu bidez testuak euskaraz idazten dutenentzat.

Hasierako Xuxen sortu zenetik, haren hainbat bertsio sareratu dira: Microsoft Office, OpenOffice.org, LibreOffice, web nabigatzaile, Adobe Indesign-erako eta abar... Honek, bertsio berrian ortografia akatsak detektatzeaz gain, proposamen gramatikalak egiten ere ikasi du.

Hala ere, informatikan oso azkar gertatzen dira aldaketak, eta programa eta aplikazioak etengabe eguneratzen dira. Gainera, euskaraz ere aldaketak izaten dira: Euskaltzaindiak arau berriak egiten ditu, hitz berriak sortzen dira, eta abar...

Horiek denak kontuan hartuta, Xuxen ere eguneratuz joan da. 2014an, xuxen.eus webgunean txertatu ziren eguneratze guztiak, eta gizartearen esku jarri ziren ordura arteko bertsiorik berrienak. Orain «jauzi berri bat» eman da, eta IXA Taldeak eta Elhuyarrek Xuxen 5 jarri dute sarean, doan deskargatzeko ([xuxen.eus/bertsioak](http://xuxen.eus/bertsioak)).



'Xuxen 5' euskarazko zuzentzaile berria. / [xuxen.eus](http://xuxen.eus)



50%

Masaje oriental de 1 hora en Bilbao  
Kang Thai - Centro de estética y  
masajes.

48€ 24€ LlévateLo



**bancopopular-e  
depósitos**  
Tu depósito a un 1,15% T.A.E.  
a 14 meses. Válido solo para  
dinero nuevo.  
[www.depositobancopopular-e.com](http://www.depositobancopopular-e.com)



**Serie Business Smart**  
Una decisión inteligente para  
tu negocio. Equipos de tinta  
profesional.  
<http://iberia.brother.es/business-5>



**Openbank**  
Llévate un  
Cheque regalo  
amazon.es  
50 euros  
Abre tu cuenta corriente antes del 30  
de Noviembre y gana 50€ en  
Amazon.es  
[www.openbank.es/amazon50e](http://www.openbank.es/amazon50e)



**Oferta Online LaCaixa**  
Trae tu nómina y llévate un televisor  
Samsung y una tablet LG  
[www.lacaixa.es](http://www.lacaixa.es)



**El Corte Inglés Seguros**  
Conoce nuestras ofertas en seguros y  
ahorra hasta un 25%  
[www.seguros.elcorteingles.es](http://www.seguros.elcorteingles.es)



**¿Cuánto quieres ganar?**  
Rentabilidad de hasta un 3% de  
interés y descuentos por tus recibos  
[www.bancosantander.es](http://www.bancosantander.es)

---

DIARIO EL CORREO, S.A. Sociedad Unipersonal.

Registro Mercantil de Bizkaia Tomo BI-531, Folio 1, Hoja BI-4140-A, Inscripción 1 C.I.F. A-48536858  
Domicilio social en c/ Pintor Losada 7 48004 Bilbao. Contacto.

Copyright DIARIO EL CORREO, S.A, BILBAO, 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio Diario El Correo, S.A.U y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilizacitotal o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.